



1GO BATXILERGOKO HAUTAZKOEN AZALPEN LABURRA

IKASGAIA		DESKRIBAPENA
FRANTSESA I Atzerriko 2. Hizkuntza Edozein ibilbide	FRAN TSES MINT EGIA	<p>Mailaren arabera egokitzen da programa.” Hasiberria” mailarekin hasten da baina poliki poliki abiadura hartzen da “A1” mailatik “A2” maila pasatzeko.</p> <p>Ahozko ulermena pelikulen bidez lantzen da.</p> <p>Ahozko ekoizpena eta idatzizko ekoizpena aurkezpenak txikiak egiten lantzen da.</p> <p>Idatzizko ulermena ariketen bidez lantzen da.</p>
EUSKAL HERRIKO HISTORIA Edozein ibilbide	HISTO RIA ETA GEOG RAFIA MINT EGIA	<p>Euskal Herriaren historian garrantzitsuak izan diren gertakari historikoak, ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak ikertzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arte izan diren lurralde- eta administrazio antolamenduaren ereduak ezagutzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arte aplikatu diren sistema ekonomikoak azaltzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arte izan diren portaera demografikoak eta bizimoduetan, bizi-zikloetan eta biztanleriaren banaketan gertatutako aldaketak deskribatu eta aztertzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arte izan diren lotura kolektiboak eta konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalaren elementu gisa bete duten zeregina zehaztasun historikoarekin bereiztea eta azaltzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arte gertatu ziren gatazka politiko, sozial eta erlijioso nagusiak ezagutzea.</p> <p>Euskal komunitateak Aro Garaikidera arte egindako ekarpen zientifikoak, kulturalak eta artistikoak identifikatzea.</p> <p>Euskal Herriaren Aro Garaikidera arteko Historiaren analisisian genero-ikuspegia txertatzea.</p>

<p>GAUR EGUNGO MUNDUAREN GATAZKAK IKT ETA EREALITATEAK PRENTSA ETA IKTren BIDEZ Edozein ibilbide</p>	<p>H IS T O RI A - G E O G R A FI A</p>	<p>FI L O S O FI A M I N T E G I A</p>	<p>Postmodernitatearen berezitasunak ezagutzea eta interpretatzea.</p> <p>Egungo munduaren problematika nagusiak eta horien konplexutasun sistematikoa eta kausa anitzekoa identifikatzea eta aztertzea.</p> <p>Teknologia berrien, komunikabideen eta sare sozialen antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea eta kritikoki aztertzea.</p> <p>Teknologia berrien, komunikabideen eta sare sozialen erabilera pertsonalak, eta aurkezten dizkiguten dilemen aurrean dugun jarrera aztertzea eta zalantzan jartzea.</p> <p>Estatuen eta kulturen arteko koexistentzia, hegemonia, mendekotasun eta sumisio erlazioak identifikatzea, globalizazio prozesuaren testuinguruan kokatuz eta horren aurrean dauden jarrerak ezagutz.</p> <p>Argudiozko elkarrizketa kooperatiboa modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan egitea.</p> <p>Gaur egun garrantzitsuak diren arazoei buruz, bertako produktuak hainbat formatutan ikertu eta lantzea, tokikot</p>
<p>KULTURA ZIENTIFIKOA Edozein ibilbide</p>	<p>FI SI K A KI M IK A M IN T E GI A</p>	<p>BI O L O GI A M IN T E GI A</p>	<p>Zentzia modalitateko KZ:</p> <p>3 orduko ikasgai honetan elikagaiak, mikroorganismoak, bioteknologia, osasuna eta medikamentuak, denbora geologikoa, kristalografia... bezalako jakintzak proiektuen bidez landuko dira. Proiektuak garatzeko informazio baliogarria bilatu eta laborategian lantzeko saiakuntzak diseinatu eta egingo dira; elikagaiek dituzten osagaien analitika, mikroorganismoak eredu eta identifikatu, mikroorganismoen behaketa, medikamenduen garapena, bioteknologiaren bidez garatutako elikagaiak ekoiztu, eta abar. Egingo diren lan guztia poster edo liburuxka digital moduko euskarrietan jasoko dira eta aurkeztuko dira.</p> <p>Lan praktikoa honen bidez biologia arloan ezinbestekoak diren sakoneko kontzeptuak ulertzeko eta barnerratzeko oso oso baliogarriak izango dira.</p> <p>Giza modalitateko KZ:</p> <p>Ikasgaiaren helburua gaur egun munduan dauden gaiak ulertzea da. Eguneroko bizitzaren fenomenoak azaltzeko behar diren ezagupen zientifikoak ulertzea eta ikastea da ikasgai honekin lortu nahi duguna.</p> <p>Ikertu-proiektuak izango dira lan metodologia nagusia. Proposatutako gai bati buruz informazio bilatu eta txosten zientifikoak burutu kasu batzuetan. Gainera, dokumentalak eta filmak iturri erakargarri gisa erabiliko dira gaiak aurkezteko-</p>

<p>HITZ ETA PITZ, EUSKARA HOBETUZI! Modalitate Guztiak</p>	<p>EUSKARA MITE NGIA</p>	<p>Ikasgai honetako helburu nagusia ahozko komunikazioa lantzea izango da, hau da, entzunaren ulermena eta ahozko adierazpena landu eta hobetzea. Hizkuntza komunikazioa da, eta irakurri eta idazteaz gain ahozkotasuna lantzea ezinbestekoa da hizkuntz gaitasuna egoki lantzeko.</p> <p>Ikasleen ahozko trebetasuna hobetzea helburu dugun honetan, euskal literaturan ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren hainbat eredu landuko dira (bertsolaritza, kantagintza, ipuin kontaketa, antzerkigintza, atsotitzak...); era berean, eguneroko berriak abiapuntu ere izango dira. Eta bestetik, gaur egun hain entzutetsu diren podcastak entzun eta geureak sortuko ditugu.</p> <p>Praktikoa izango den ikasgai honetan, eguneroko lana eta egingo diren ekoizpenak ebaluatuko dira.</p> <p>Ikasketetan zein lan munduan egin behar izaten diren ahozko aurkezpenak erraztasunez egin ahal izateko lagungarria izango da.</p>
---------------------------------------------------------------------------	---------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

<p>AHOZKO KOMUNIKAZIOA INGELERAZ Edozein ibilbide</p>	<p>INGEL ES MINT EGIA</p>	<p>Hautazko irakasgai honen bidez, gure ikasleen ahozko hizkuntza-gaitasuna indartu nahi da, bai eta kulturartekotasuna sustatu ere, elkarlaneko eta banakako lanen bidez, komunikazioaren eta teknologiaren tresnak erabiliz. Funtsezkoa da hizkuntza jakin batean gaitasun komunikatibo ona izatea, horrela, hizkuntza horren hiztun eta komunikatzaile autonomo bihurtuko gara. Oro har, bi arrazoi nagusi daude ikasleek ikasgaiari aktiboki hitz egin dezaten lortzeko: ikasleei hizkuntza-itemak praktikatzeari (hiztegia, gramatika-funtzioak, etab.) eta ikasleek jarioratasunez eta modu interaktiboan hitz egiteko gaitasuna garatzea. Aldi berean, beste helburu batzuk izango dira ikasleak beraien bilakaeraren jakitun izatea eta hobetzeko estrategiak garatzea.</p>
<p>IKT I (informatika I) Zientzi eta Teknologia Giza-Gizarte Zientziak Orokorra</p>	<p>INFO RMA TIK A MIN TEGI A</p>	<p>Badakigu webguneak edo blogak sortzen, baina ez dakigu benetan zer dagoen atzean. Irakasgai honetan, web orrien atzean barneratzen ikasiko dugu, hizkuntza desberdinak ikasiko ditugu orrialdeak nahierara manipulatzeko.</p> <p>Ikastaroa hiru multzotan banatzen da: egitura sortzea, diseinua eta programatzea, orrialdeari "bizitza" ematea JavaScript bidez eta erabiltzailearekin elkarreragitea.</p> <p>Hirugarren ebaluazioan, robotikaren hastapenak landuko dira eta mugikorreko aplikazioei eta 3Dko inprimaketari egingo zaie keinu.</p>

<p>KULTURA ZIENTIFIKOA <u>INGELERAZ</u> Zientzi teknologia Orokorra</p>	<p>BIOLOGIA MINTEGIA</p>	<p>3 orduko ikasgai honetan elikagaiak, mikroorganismoak, bioteknologia, osasuna eta medikamentuak, denbora geologikoa, kristalografia... bezalako jakintzak proiektuen bidez landuko dira. Proiektuak garatzeko informazio baliogarria bilatu eta laborategian lantzeko saiakuntzak diseinatu eta egingo dira; elikagaiak dituzten osagaien analitika, mikroorganismoak eredu eta identifikatu, mikroorganismoen behaketa, medikamenduen garapena, bioteknologiaren bidez garatutako elikagaiak ekoiztu, eta abar. Egindako lan guztia poster edo liburuxka digital moduko euskarrietan jasoko dira eta aurkeztuko dira.</p> <p>Lan praktikoa honen bidez biologia arloan ezinbestekoak diren sakoneko kontzeptuak ulertzeko eta barneratzeko oso oso baliogarrak izango dira.</p> <p>Ingelesez emango da ikasgaia. Ahozkotasuna lantzeko eta ingeles zientifikoaren hastapenak egiteko ikasgai aproposa da.</p>
<p>ANATOMIA APLIKATUA Zientzi ibilbidea</p>	<p>BIOLOGIA MINTEGIA</p>	<p>Osasuna da gaur egun gizartearen kezka handienetakoa eta gero eta garrantzi handiago ematen zaio. Ikasgai honen helburu nagusia da gizonaren eta emakumearen gorputzaren azterketa, bai ikuspuntu anatomikotik eta fisiologikotik. Era berean ohitura osasungarriak eta prebentibo egokiak aipatuko ditugu. Hori guztia garatzeko laborategiko praktikak, lan monografikoak, ahozko aurkezpenak (IKT-ren laguntzaz ordenagailu gelan prestatuak), etab, izango dira gure metodologiaren oinarriak.</p>
<p>LABORATEGI TEKNIKAK Zientzi eta Teknologia Orokorra</p>	<p>FISIKA KIMIKAMINTEGIA</p>	<p>Irakasgai honetan, ikasleak laborategiko oinarriko tresneria ezagutuko du, eta lan praktikokoak egingo ditu segurtasun eta garbitasun arauak kontuan izanda.</p> <p>Laborategiko praktiken bitartez, eta lan taldetan antolatuta, oinarriko teknika instrumentalak ezagutuko ditu, eta magnitude fisiko eta kimikoen neurketak egingo ditu. Lan esperimentalaren lortutako emaitzen trataera eta ondorioak laborategiko txosten batean jasoko dira.</p> <p>Irakasgai hau erabat praktikoa denez beti laborategian (4 ordu) emango da.</p> <p>Fisika-Kimika irakasgaia osatzeko, eta laborategiko esperientziak egiteko arlorik egokiena da.</p>
<p>ALJEBRA eta KALKULOAK Zientzi eta Teknologia</p>	<p>MATEMATIKA MINTEGIA</p>	<p>Irakasgaiaren helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Problema ebazteko estrategia desberdinak lantzea. (Olinpiada Matematikoko problemen lanketa) * Informatika-programak erabiltzea (Geogebra, adibidez) kalkulu- eta irudikapen-tresna gisa, problema eta ariketak ebazteko. * Konbinatoria erabiltzea, eguneroko bizitzako egoera askotan planteatzen diren zenbaketak egiteko. * Estatistika eta Probabilitate kalkuluarekin, Matematika ingurune sozioekonomiko eta teknologikoarekin erlazionatzea.

<p>PENTSAMENDU KONPUTAZIONALA JOLASEN PROGRAMAKETAREN BIDEZ Zientzi eta Teknologia Orokorra</p>	<p>INFO RMAT IKA MINT EGIA</p>	<p>Jolasak garatzean, norbanakoek trebetasun teknikoak eskuratzeaz gain, arazoen ebazpena, sormena eta pentsamendu logikoa lantzen dituzte. Jokoak programatzeak arazo konplexuak osagai erabilgarriagoetan deskonposatzea dakar, pentsamendu konputazionalan funtsezko trebetasuna. Joko-diseinatzaileek erronka batzuei heldu behar diete: interaktibitatea, jokoaren logika eta erabiltzailearen erantzuna.</p> <p>Arazo horiek zeregin txikiagoetan banatzeak deskonposizio-gaitasuna eta problemak urratsez urrats ebaztea sustatzen du. Iterazioa jolasen garapenaren funtsezko zati bat da. Programatzaileek beren kodeak etengabe berrikusten eta hobetzen dituzte joko eraginkorragoa eta erakargarriagoa lortzeko.</p> <p>Praktika honek etengabeko hausnarketa eta hobekuntza sustatzen ditu, pentsamendu konputazionalaren funtsezko ezaugarriak. Diseinatzaileek aukera ugari ebaluatu behar dituzte, eta jokoan nola eragingo duten aurreikusi. Garatzaileek ideia desberdinekin esperimendu dezakete, joko-esperientzia paregabeak sortzeko. Horrek sormena sustatzen du, aurrez definitutako konponbiderik ez duten erronkei aurre egiten baitie, originaltasuna eta malgutasun mentala sustatuz.</p>
<p>ZUZENBIDEA Giza-Gizarte Orokorra</p>	<p>EKON OMIA MINT EGIA</p>	<p>Zuzenbidea gure egunerokotasunean erabat txertaturik dago: zergak ordaintzen ditugu, lan kontratuak sinatzen ditugu, epaiketak daude, ondasun eta zerbitzuak erosten ditugu eta erreklamazioak egoten dira, eta guzti honen atzean araudiak edo legeak daude.</p> <p>Ikasgai honetan zuzenbidearen inguruko oinarrizko jakintzak lantzen dira: Zuzenbide mota desberdinak, justizia-sistemaren egitura.</p> <p>Guztia metodologia praktikoa batekin egingo da, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza oinarrituta, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun dokumentuak aztertuz eta gure inguruko erakundeak ezagutzuz.</p>
<p>EUSKAL HERRIKO ETA ESPAINIKO XX. MENDEKO LITERATURA Giza-Gizarte Artistikoa</p>	<p>GAZTE LANIA MINT EGIA</p>	<p>METODOLOGÍA ACTIVA Y PRÁCTICA: PROYECTOS LITERARIOS (metodología basada en situaciones de aprendizaje)</p> <ul style="list-style-type: none"> • La asignatura será mayormente <u>práctica</u> y se evaluará el <u>trabajo diario</u> y <u>las producciones finales</u>. Se crearán textos literarios escritos, orales o multimodales de forma individual o grupal, para estimular la faceta creativa y desarrollar la sensibilidad estética. • Se <u>leerán</u> obras y fragmentos de la literatura vasca y española del siglo XX como fuente de placer y enriquecimiento personal y cultural, seleccionando las lecturas con criterios propios y realizando un <u>plan lector personal</u>. • Se realizarán <u>lecturas guiadas</u> y tertulias dialógicas en grupo. • Se realizarán visitas a bibliotecas tanto físicas como digitales y en la medida de lo posible <u>actividades extraescolares</u> relacionadas con la asignatura. • Se analizarán las relaciones existentes entre obras de la literatura vasca y española del siglo XX y cualquier otra manifestación artística, en particular el CINE, para reconocer las semejanzas y diferencias entre los diferentes modos expresivos.

<p>EUSKAL HERRIKO ETA ESPAINIKO XX. MENDEKO LITERATURA Giza-Gizarte Artistikoa</p>	<p>EUSKARA MINTEGIA</p>	<p>XX. mendeko euskal eta espainiar lan eta idazle esanguratsuenen obrak eta pasarteak irakurtzea ikasleen aberastasun kulturala, literarioa eta linguistikoa osatu asmoz.</p> <p>XX. mendeko idazleen obretan landutako gaiak eta kezkek identifikatzea eta ikasleei testuinguru historikoan kokatzen laguntzea, beti ere, egungo gizarte eta gatazkak ulertzen ikasteko.</p> <p>XX. mendeko euskal eta espainiar literaturaren arteko elkarreragina aztertu eta, aldi berean, munduko beste literaturenganako hurbilketa landu.</p> <p>Egungo literaturaren gaineko hausnarketa: itzulpengintza, best sellerak, digitalizazioa, literatura eta gainerako esparru artistikoak,...</p> <p>Lan-metodologia eta ebaluazioa:</p> <p>Ebaluazio bakoitzean azalpen teoriko labur batzuk ematearekin batera, ikasleek taldeka nahiz bakarka autore/obra nagusien irakurketa gidatua egingo dute, baita horien inguruko ahozko aurkezpenak eta mahai-inguruak ere. Halakoetan berariaz sustatuko da baliabide digitalak erabiltzea, kontestu historikoaren gaineko loturak egitea eta bestelako adierazpen artistikoetara hurbiltzea, beti ere, ikasleen alderdi kritikoaren lanketari, sormen alderdiari eta sentsibilitate estetikoari lehentasuna emanez. Edozein modutan, irakasgaia gehienbat praktikoa izango da, eta eguneroko lana eta azken ekoizpenak ebaluatuko dira. Azkenik, ahal den neurrian, gaiarekin loturiko jarduerak burutuko dira: bisitak, hitzaldiak, irteerak,...</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



PIO BAROJAN AURREMATRIKULATZEKO INFORMAZIO OSAGARRIA

